


Txikizkako sektoreko salmentak % 0,2 igo ziren 2019ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn

2019ko balantzean, txikizkako merkataritza-sektoreak % 0,9ko igoera izan du aurreko urtearekin alderatuta

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektorearen salmentak % 0,2 igo ziren prezio konstanteetan 2019ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, Eustatek emandako datuen arabera. Gasolindegia sartu gabe, sektorearen salmentak %0,4 jaitsi ziren urte arteko tasan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizeak ez du aldakuntzarik eduki (% 0,0), behin kenduta urtaroen eragina.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreka, elikadurak % 0,3 egin zuen gora 2019ko laugarren hiruhilekoan, gainerako produktuen txikizkako merkataritzak % 0,9 egin zuen behera, eta automobilgintzarako erregaiaren salmentak % 7,8 egin zuen gora, hori dena 2018ko aldi berarekin alderatuta, eta prezioen eta egutegiaren eragina kendu ondoren.

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, merkataritza espezializatuak % 0,9 egin zuen behera, eta elikadura nagusi den ez-espezializatuak, berriz, % 0,9 egin zuen gora.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritza % 3,2 igo zen, eta beste hiru sektoreek, berriz, aldaketa negatiboa izan zuten. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuak % 0,1eko jaitsiera gertatu da, bestelako kontsumo-ondasunetan espezializatuak % 0,7ko jaitsiera

izan da, eta pertsonaren ekipamenduan espezializatuan % 4,7koa izan da jaitsiera; prezio konstanteetan eta urtaro-eraginak kenduta hori guztia.

Lurraldeka, salmenta-indizea horietarik bitan hazi da urte artean. Araban txikizkako merkataritza osoaren salmentak % 3,5 igo ziren termino errealean eta Gipuzkoan, berriz, % 2,2. Aldiz, Bizkaian % 1,9ko murrizketa izan zen.

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektorean 2019ko laugarren hiruhilekoan okupatutako langileak % 0,9 jaitsi ziren aurreko urteko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. 2019ko hirugarren hiruhilekoaren aldean % 0,3koa izan da jaitsiera.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. IV/2019

	PREZIO FINKOAK		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	0,2	0,0	0,9
Araba/Álava	3,5	1,1	2,0
Bizkaia	-1,9	-0,6	-0,1
Gipuzkoa	2,2	0,5	1,8
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	0,3	-0,6	1,5
Elikagaietan espezializatuta	-0,9	-1,2	0,3
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	0,9	0,5	2,0
Beste produktuak	-0,9	-0,1	0,0
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-4,7	-0,5	-2,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	3,2	0,4	1,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-0,7	-0,2	0,5
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-0,1	0,4	1,9
Automozioko erregaia	7,8	1,2	3,3
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-0,4	-0,3	0,7
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	-0,9	-0,3	0,1

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

2019ko urteko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek % 0,9ko gehikuntza erreal metatua eduki dute aurreko urtearen aldean. Gasolindegia alde batera utziz gero, txikizkako gainerako merkataritzaren salmentak % 0,7 igo dira. Sektoreka, elikadurak % 1,5 egin zuen gora, eta gainerako produktuen merkataritzak ez zuen aldaketarik izan (% 0,0) urte osoan.

Lurraldeka, urte osoan eta prezio konstanteetan, jokamolderik onena Arabak eduki du, % 2,0ko gehikuntzarekin; ondoren, Gipuzkoak, % 1,8ko igoerarekin; azkenik, Bizkaia % 0,1eko murrizketa eduki du.

2019an, txikizkako merkataritza-sektoreko enpleguaren igoera % 0,1ekoa izan da Euskal AEn, aurreko urteko batezbestekoarekin alderatuta.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62